



IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una publicación periódica, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

Esti Vivancoren Egun gorriak (2019) eleberriaren azterketa: futbol-literatura eta hezkuntza

Oihane Calvo Ugarte 

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ocalvo007@ikasle.ehu.es

To cite this article:

Calvo Ugarte O. (2024). Esti Vivancoren Egun gorriak (2019) eleberriaren azterketa: futbol-literatura eta hezkuntza. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 32, 1-32. DOI: 10.37261/32_alea/1

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/32_alea/1

Published online: 31 Mar. 2024

Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019) eleberriaren azterketa: futbol-literatura eta hezkuntza

Study of the novel Egun gorriak (2019) by Esti Vivanco: football literature and education

Oihane Calvo Ugarte 

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ocalvo007@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Ikerketa lan honen helburu nagusia futbol-literaturaren eta hezkuntzaren arteko erlazioa ezartzea da, futbol-literaturak duen balio pedagogikoa aztertuz. Horretarako, Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019) eleberritik abiatuz, Gérard Genetten (1989) eredua jarraikiz eleberriaren azterketa narratologikoa gauzatu da, ondoren Rafael Bisquerraren (2009) eta Ricardo Marín Ibáñez (1976) sailkapen erduetan oinarrituta, bertan ageri diren emozioak eta balioak aztertuz. Horrela, futbol-literatura hezkuntzarako tresna potentziala izan daitekeela ondorioztatu da, ikasleen errealitatetik hurbil dagoen gaia izanik, haien motibazioa eta interesa piztu ez ezik, futbola hitz bihurtzen denean, emozioak zein balioak lantzeko aukera eskaintzen baitu.

Hitz gakoak: Futbol-literatura, Lehen Hezkuntza, emozioak eta balioak

Abstract

The main objective of this research is to establish a relationship between football literature and education, analysing the pedagogical value of football literature. For this purpose, based on the novel *Egun gorriak* (2019) by Esti Vivanco, a narratological analysis of the novel has been carried out, following the model of Gérard Genette (1989), and subsequently, based on the classification models of Rafael Bisquerra (2009) and Ricardo Marín Ibáñez (1976), the emotions and values displayed in the novel have been studied. Hence, it has been concluded that football literature can be a potential tool for education, since it not only awakens their motivation and interest, but when football is turned into words, it provides the opportunity to work on emotions and values.

Key words: Football literature, Primary Education, emotions and values

Estudio de la novela *Egun gorriak* (2019) de Esti Vivanco: literatura sobre fútbol y educación

Resumen

El objetivo principal de este trabajo es establecer una relación entre la literatura sobre fútbol y la educación, analizando el valor pedagógico de la literatura sobre fútbol. Para ello, a partir de la novela *Egun gorriak* (2019) de Esti Vivanco, se ha llevado a cabo un análisis narratológico de la novela siguiendo el modelo de Gérard Genette (1989), y posteriormente, basándose en los modelos de clasificación de Rafael Bisquerra (2009) y Ricardo Marín Ibáñez (1976), se han analizado las emociones y valores presentes en la misma. Así, se ha llegado a la conclusión de que la literatura sobre fútbol puede ser una herramienta potencial para la educación, ya que no sólo despierta su motivación e interés, sino que cuando el fútbol se convierte en palabra, ofrece la oportunidad de trabajar las emociones y los valores.

Palabras clave: Literatura sobre fútbol, Educación Primaria, emociones y valores

1. Sarrera

Gaur egun, futbola da munduko kirolik ezagunenetakoa eta gure inguruan gehien hitz egiten den gaietarikoa bat. Halaber, futbolak masak mugitzen ditu, futbola joko eta denborapasa kirol izan ez ezik, gizarte mailan ere nazioak eta talde sozialak elkartzen baititu. Literaturaren arloan ere futbolari lekua eman zaio, nahiz eta bi errealitate kontrajarri iruditu. Idazle asko dira futbolaren gaia landu dutenak; horien artean, Eduardo Sacheri eta Osvaldo Soriano argentinarrak.

Haur eta Gazte Literaturan ere, futbola ardatz duten hainbat lan argitaratu dira. Kontuan izanda, gaur egungo gazteen eta umeen zaletasun handienetakoa futbola dela, Lehen Hezkuntzako ikasgelara futbol-literatura eramateko aukera aztertu beharko litzateke, ikasleen errealitatek hurbil dagoen gaia izanik, haien motibazioa eta interesa pitz daitezkeelako. Horregatik, jarraian aurkezten den ikerketa lanaren helburua futbol-literaturaren eta hezkuntzaren arteko erlazioa ezartzea da, futbol-literaturak duen balio pedagogikoa aztertuz.

Horretarako, lehenik eta behin, futbolak literaturan, Euskal Literatura eta Haur eta Gazte Literatura barne, gaur egun duen eta iraganean izan zuen papera eta presentzia aztertu da, ikerketa dokumentala erabiliz eta autore ezberdinen hitzetan oinarrituz. Ondoren, Euskal Haur eta Gazte Literaturako futbolaren gaia jorratzen duen eleberri bat hautatu da, zehazki, Esti Vivanco bizkaitarraren *Egun Gorriak* (2019), eta horren azterketa narratologikoa gauzatu da Gérard Genettek (1989) garatutako eredu aplikatuz. Horrez gain, eleberrian bertan ageri diren emozioen eta balioen analisia ere egin da, Rafael Bisquerraren (2009) eta Ricardo Marín Ibáñezek (1976) sailkapen ereduetan oinarrituz. Horrela, ikerketaren ondorio nagusiak aurkeztu dira, futbol-literatura hezkuntzarako tresna potentziala izan daitekeela adieraziz, bertan ageri diren emozio zein balio anitzak lantzeko aukera eskaintzen baitu. Honek guztiak balio dezake, egindako azterketa sakonetik abiatuz, etorkizunean parte-hartzaileak eta ikasleentzat interesgarriak diren proposamen didaktikoak diseinatzeko, ondoren ikasgela erreal batera eramateko xedearekin.

2. Futbol-literatura kritikaren esparruan

2.1. Futbol-literatura

Futbolak mugimenduarekin eta tentsioarekin lotura handia du. Aldiz, literatura eta irakurketa lasaitasunarekin lotzen dira. Beraz, lehen begiratuan, futbolak eta literaturak

zerikusirik ez dutela dirudi. Hala ere, David García Camesek azaltzen duen moduan, beste hainbat autoreen artean, letrak eta futbola elkarrekin bizi izan dira beti, futbolak hitzez kontatzen denean soilik hartzen baitu zentzua. Bere hitzetan:

El fútbol, en contra de las apariencias, necesita de la palabra para persistir. El gol, sin el grito que consagra su instante, está condenado a agotarse en la fugaz memoria del aficionado. El fútbol se expresa de este modo a través de un relato incesante que aspira a demorarse más allá del rectángulo de juego. (2017, 494.or.)

Era berean, Juan Villorok idatzitako *Dios es redondo* izeneko liburuan ideia berdina azpimarratzen da, futbolaren eta letren arteko erlazioa ezarriz: “Y es que el fútbol es, en sí mismo, asunto de la palabra. Pocas actividades dependen tanto de lo que ya se sabe cómo el arte de reiterar las hazañas de la cancha ” (2006, 22.or.).

Beraz, futbolak literaturan bere tokia duela esan daiteke, futbolaren eta letren bi errealitateek bat egiten baitute, bata bestearen eremuan sartuz. Azken finean, futbola literatura izeneko beste joko baten barruan birsortutako jokoa dela esan daiteke. Joko bat – futbola – kontatzen da, beste joko ezberdin baten bidez – literatura –. Beste modu batean esanda, hitza erabiltzen da baloi gisa, eta liburua zelai gisa (Díaz Zuluaga, 2015). Izan ere, futbolak funts edo mami literarioa du, bizitzako oinarritzko funtsa duelako, jokaldi barnean pertsona oso bat dagoelako. Hori dela eta, futbolak nolabaiteko osagai emozionala duela esaten da, bertan agerian baitaude giza balioak, jarrerak, itxaropenak, gogobetetzeak, frustrazioak eta abar. Hemen agertzen da futbola literatura gai eduki aberats moduan (Núñez Ramos, 2015). Honen harira, Eduardo Sacheri argentinarrak, futbolari buruzko liburu askoren idazlea, ideia hau babestu zuen honakoa esanez:

Creo que todas las historias que contamos buscan acceder, de un modo u otro, a los grandes temas que gobiernan nuestras vidas como seres humanos. [...] El fútbol, como parte de esa vida que tenemos, me sirve entonces como una puerta de entrada a esos mundos íntimos en los que se juegan asuntos mucho más definitivos. (2014, 10.or.)

Gainera, osagai emozional horri esker, futbol-literatura bizitzaren eta gizartearen simulakro gisa baliagarria izan daiteke, non indibidualismoa, nazionalismoa, patriotismoa, sexismoa, arrazakeria, justizia eta abar islatzen diren. Hau da, futbola gizakiaren emozioak eta bizitzaren konplexutasunak esperimentatzeko edota sentitzeko lekua izan daiteke, futbolaren eta bizitzaren arteko harreman nabarmena agerian utziz (Ashton, 2014).

Bestalde, futbolari buruz idaztean, haurtzaroaren irudia aldarrikatzen da, esanahi eta nostalgia handiko oroitzapen gisa, non futbola iraganeko lekuetara iristeko bide bihurtzen den. Juan Villorok dioen bezala: “Vemos partidos y escribimos de fútbol para recuperar la infancia, no la que en verdad vivimos, sino la que nos asignamos a nosotros mismos” (2014, 20.or.). Izan ere, Jon Kortazarren esanetan: “Futbolaren zaletasunaren transmisioa haurtzaroan egin ohi da” (2020, 110.or.) eta haurtzaro horretara bueltatzeko tresna gisa erabiltzen da futbol-literatura. Beste era batera esanda, hitzaren bidez iraganeko jokaldi, golak eta intentsitate-uneak berriro ere sentitzeko desiragatik idazten dira futbolari buruzko hainbeste ipuin, eleberri eta poema.

Hala ere, kirol honi buruzko literatura-lanak sortzeko aukera ematen duten osagai emozionalak eta haurtzaroaren oroitzapenak gorabehera, futbolaren fikzionalizazio eskasa sumatzen da literaturan, eta hori kirol honen interes narratibo txikiaren ondorio da. Izan ere, partidako jokaldiak ez dira benetan erakargarriak idatziz jartzen direnean; jokaldi bati buruz irakurtzeak denbora gehiago hartzen baitu hura ikusteak baino. Horregatik, futboleko kontakizun onenek jokaldien gorabeheraz arduratzeaz gain, futbola inguratzen duten elementuak kontuan hartzen dituzte; hau da, narratiboki benetan interesgarria dena txertatzen dute, kirol jokaldiei zein taktikei ihes eginez (Pron, 2013).

Hori dela eta, gehien erabiltzen den generoa ipuina da (Kortazar, 2022), zelaian bizitakoa transmititzeko eta helarazteko egokiena delakoan. Hau honela izanda, Juan Villororen hausnarketa ekarri behar da gogora:

Cada cierto tiempo, algún crítico se pregunta por qué no hay grandes novelas de fútbol en un planeta que contiene el aliento para ver un Mundial. La respuesta me parece bastante simple. El sistema de referencias de fútbol está tan codificado e involucra de manera tan eficaz a las emociones que contiene en sí mismo su propia épica, su propia tragedia y su propia comedia. No necesita tramas paralelas y deja poco espacio a la inventiva del autor. Esta es una de las razones por las que hay mejores cuentos que novelas de fútbol. Como el balompié llega ya narrado, sus misterios inéditos suelen ser breves. (2006, 22.or.)

Era berean, Yvette Sánchezek Juan Villororekin bat egiten du, honakoa aditzera emanaz: “Beti, gaur arte, nagusi izan dira literatura-genero laburrak; ez da ageri maisulan handi bat futbolari buruz; futbolak bere buruarekin aski duela dirudi, eta ez duela behar arte-sublimaziorik” (2020, 20.or.).

2.1.1. Futbol-literatura historian zehar

2.1.1.1. Hastapenak

Futbola irakurketaren kontrako praktika gisa sortu eta ulertzen zen. XIX. mendean, irakurtzea ilustratuen berezkoa zen, kultura sarbiderako beharrezko ahalmen ekonomikoa zuten klase altuko pertsonen berezkoa. Futbola, aldiz, klase herrikoien fenomeno eskusiboa zen, eta, beraz, dibertsio elementu gisa erabiltzen zuten, fabriketako lan nekagarria ahazteko edota alde batera uzteko. Ondorioz, intelektualek eta kulturako jendeak futbola estigmatizatu eta dibertsio alienatzailetzat jo zuten (Núñez Ramos, 2015).

Idea hau hainbat idazle ospetsuen iritzian oinarritu zen; horien artean, Rudyard Kipling eta Umberto Eco. Idazle hauek kirol-jardueraren eta letren arteko kontrastea babesten zuten; izan ere, kirol-jardueran gorputzak zeregin nagusia du, eta berriz, letretan adimena gailentzen da (Núñez Ramos, 2015). Julián García Candau espainiar idazle ere Espainiako intelektuaren eta futbolaren arteko bereizketa berretsi zuen *El fútbol sin ley* liburuan, honako hau esanez:

Hasta la muerte de Franco muy pocos intelectuales se atrevieron a afirmar públicamente su predilección por el fútbol. Hasta la muerte de Franco los intelectuales de izquierda ocultaban su afición incluso a sus correligionarios. El fútbol en aquellos años era un deporte-espectáculo aliente. Era el opio del pueblo. La vieja filosofía del pan y toros había sido sustituida por el pan y fútbol. (1980, 19.or.)

Era berean, Jorge Luis Borges idazle argentinarrak garai hartako intelektual askoren pentsamendua babestu zuen, futbolarekiko mespretxu handia erakutsiz: “El fútbol es popular porque la estupidez es popular. Once jugadores contra otros once corriendo detrás de una pelota no son especialmente hermosos” (Borges, apud Ashton, 2014, 19.or.).

Futbolaren eta literaturaren arteko bereizketak ia mende bat iraun zuen. 90eko hamarkadan hasi zen haustura hori gertatzen. Futbola kirolik ospetsuena bihurtzen eta masak erakartzen hasi zen (Díaz Zuluaga, 2015). Egoera honen aurrean, futbola behin betiko geratzeko iritsi zela onartzen hasi zen, eta literaturak futbola alde batera uzteari utzi behar izan zion.

Testuinguru horretan, zenbait idazle futbola beste ikuspegi batetik ikusten hasi ziren, futbolak emozio sakonenak adierazteko eta bizitza-irakaspen garrantzitsuak eskaintzeko duen

gaitasuna azpimarratuz. Idazle horietako bat Albert Camus izan zen, futbolari bultzada emanaz hainbat alditan: “Lo que finalmente sé con mayor certeza respeto a la moral y de las obligaciones de los hombres, se lo debo al fútbol”; “Toda la filosofía de la vida puede aprenderse dentro de un campo de fútbol” (Camus, apud Ashton, 2014, 19.or.). Horrela, futbolak gorakada handia izan zuen intelektualen artean eta kirol honi buruzko lehen idazkiak agertzen hasiko dira: futbola protagonista edo ardatz gidari duten eleberriak eta ipuinak, baita olerkiak ere.

2.1.1.2. Bilakaera

1918an, Buenos Aireseko *Atlántida* aldizkarian gaztelaniazko futbol-literaturaren testu aitzindaria argitaratu zen: *Juan Polti, half-back* (1918), Horacio Quirogak idatzitakoa. Urte horretan, Juan Parra del Riego poetak ere, «Loa del fútbol» izeneko poema idatzi zuen, ondoren *Poesía* (1943) liburuan argitaratuko dena, futbolari buruzko lehen obra lirikoa. Bai Horacio Quirogaren ipuinak, bai Juan Parra del Riegoren poemak futbolari ateak ireki zizkieten literatura-sorkuntzan (García Cames, 2018).

Horrela, futbolari buruzko lehenengo fikzio-liburuak argitaratzen hasten dira Espainian. Horien artean, Rafael López de Harok idatzitako *Fútbol...Jazzband* (1924), José Luis Bullagalek idatzitako *El coloso de Rande* (1927), Juan Antonio de Zunzunegik idatzitako *Chipiri* (1931) eta Wenceslao Fernándezek idatzitako *El sistema Pelegrín* (1949) (Díaz Zuluaga, 2015).

Nahiz eta futbolari buruzko narrazio ugari argitaratu, futbola poesiaren eskutik sartuko da espainiar literaturan. Izan ere, 27ko belaunaldiko poeta askok kirola, eta ondorioz, futbola ere, literatura-sorkuntzetarako iturri aberats gisa ikusiko dute. Honen adibide argia Rafael Albertiren *Platko* (1928) poeman aurkitzen da, non Franz Platko atezainak 1928ko Errege Koparen lehen partidaren egindako partida heroikoa goraiatzen den (García Cames, 2018).

Hala ere, 60ko hamarkadatik aurrera nabaritu zen futbol-literaturak izandako gorakada. Garai honetan, futbolari buruzko testuak edo ipuinak biltzen zituzten antologia ugari argitaratu ziren; adibidez, Juan de Diegoren *El gol nuestro de cada día* (1961), Camilo José Celaren *Once cuentos de fútbol* (1963) eta Eduardo Galeano uruguaitarraren *Su majestad el fútbol* (1968). Argentinan ere, Roberto Fontanarrosa eta Osvaldo Soriano futbolak literatura barruan behar duen tokia aldarrikatzen saiatzen dira, *Nada del otro mundo y otros cuentos* (1987) eta *Cuentos*

de los años felices (1993) liburuetan argitaratutako «19 de diciembre de 1971» eta «El penal más largo del mundo» izeneko ipuinak idatziz (García Cames, 2017).

Nolanahi ere, Yvette Sánchezek esaten duen moduan: “Bi argitalpenek eman zioten behin betiko bultzada futbolaren eta literaturaren arteko loturari espainiar giroan: Juan Villororen saiakera batek, *Los once de la tribu* (1995), eta Jorge Valdanoren antologiak, *Cuentos de fútbol* (1998)” (2020, 20.or.). Obra hauez gain, Ray Loriga idazleak ere bere lehenengo nobela argitaratzen du: *Lo peor de todo* (1992), zeinetan futbolak paper sinbolikoa duen. Honen harira, Miguel Ángel Ortiz eleberrigileak honakoa baieztatzen du: “El fútbol ya no es contado, como había ocurrido antes, sino que el fútbol es el que cuenta” (Ortiz, 2015, apud García Cames, 2018, 85. or.). Horrela, 90eko hamarkadan futbola literatura-gai gisa finkatu zen.

2.1.1.3. *Gaur egun*

2000. urtetik aurrera, futbolaren munduari buruzko eleberri eta kontakizun labur ugari argitaratu dira. Hispanoamerikan, nabarmentzekoak dira Eduardo Sacheri argentinarra eta Reinaldo Edmundo Marchant txiletarra, futbolari buruzko kontakizunen egile oparoenak. Bestalde, Espainian ere, futbolari buruz hitz egiten duten literatura-lanek gora egin dutela ikus daiteke; hala nola, Juan Carlos Márquezen «Belgrado 1976» ipuina, *Llenad la tierra* (2010) liburuan irakur daitekeena, eta Ramiro Pinillaren *Aquella edad inolvidable* eleberria (2012) (Díaz Zuluaga, 2015).

Laburbilduz, futbolari buruzko literaturak tradizio luzea du, baina XXI. mendea iristean, ospea, estimazioa eta errespetua lortu ditu, iraganean ez bezala. Futbola fenomeno sozial handienetako bat dela onartu da, eta, hala, pixkanaka literatura-gai gisa finkatu da Espainiako eta Latinoamerikako narratiban (Ashton, 2014). Honi loturik, Yvette Sánchez (2010) venezuelarrak futbolaren estatusaren aldaketa paradigmaticoa gertatzen ari dela adierazi du, legitimatuz eta aurreiritzietatik libratuz, eta, ondorioz, kirol horrekiko zaletasuna aitortzeko askatasuna hartu dute idazle eta irakurleek.

2.2. *Futbola euskal eleberrian*

Euskal Herrian futbolari buruzko obra ugari argitaratu dira XX. mendeko lehen hamarkadetatik aurrera, baina Bernardo Atxagak idatzitako *Gizona bere bakardadean* (1993) izan daiteke nobela aitzindaria. Hala ere, obra honetan eta futbolari buruzko euskal obra

gehienetan futbola modu zehar batean lantzen da, futbola bizitzan eragina duten beste kontu edo gertaerak lotzeko aitzakia gisa. Izan ere, “Euskaraz futbolaren inguruan eraikitako eleberri osoak aipatu beharko bagenu, esku bateko hatzez konta genitzake” (Sampedro Alegria, 2020, 27.or.).

Hala ere, euskal nobelagintzan egon badaude zenbait egile futbola eleberriaren erdigunean jartzen dutenak. Alde batetik, Juan Mari Irigoienek bi eleberri idatzi ditu futbolaren inguruan: *Odolean neraman* (2004), non euskal talde bateko harrobiko jokalarien istorioa kontatzen duen, eta *Derbia* (2019), zeinetan futbol zaleak diren protagonistak. Bestetik, Etxeberria anaiek, Euzkadi Selektzioko Kepa Areso jokalariaen egunerokoaz baliatuz, kutsu bibliografikoa duen *Ez dadila eguzkia sartu* (2006) nobela argitaratu dute. Azkenik, Harkaitz Canok idatzitako *Twist* (2011) eleberrian ere futbola ageri da, haurtzaroaren nostalgiarekin loturik (Kortazar Billelabeitia eta Kortazar, 2021).

Ipuingintzaren alorrean; aldiz, errepertorio zabalagoa aurki dezakegu. Horien artean, arestian aipatutako Harkaitz Canoren *Telefono kaiolatu*a (1997) liburuaren barnean dagoen «Aurkako taldeko atezaina»; Aritz Gorrotxategiren «Zazpi pausuak» eta «Gol heretiko», *Egurra Pinotxori* (2002) eta *Axola ez duenean* (2009) liburuetan irakur daitezkeenak; Koldo Izagirreraren «Hondartza», *Franco hil zuten egunak eta Basques's Harbour-eko beste kontu asko* (2016) libururako idatzia; Xabier Montoiaren «Loria omen zion halabeharrak gordea», *Fucking artists* (2010) liburuan argitaratua; eta Ana Malagonen «Zaborraren minutuak», *Gelditu zaitezte gurekin* (2017) obran ageri dena (Kortazar Billelabeitia eta Kortazar, 2021).

Bestalde, futbolari ematen zaion tratamenduari dagokionez, aipatzekoa da euskal lan gehienek futbola umorea egiteko erabiltzen dutela. Honen adibide argiak lehen aipatutako Etxeberria anaien *Ez dadila eguzkia sartu* (2006) eta Juan Mari Irigoienek *Derbia* (2019) dira. Edonola ere, badaude futbola umoreaz aparte lantzen duten beste hainbat obra ere; hala nola, Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1998) eta Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016).

Azken finean, esan daiteke euskal idazleak futbol-literaturara hurbiltzen direla ez kirol jarduera bera goraiatzeko, baizik eta zehar-aipamen gisa, bizitzako beste gai edo kontu batzuk kontatzeko tresna gisa, alegia (Sampedro Alegria, 2020).

Azkenik, aipatzekoa da *Letrak eta Futbola* eta *Korner* bezalako euskal literatura jaialdien lana futbolari buruzko idazketa eta emakume idazleen isla indartzeko orduan. Izan ere, jaialdi hauei esker, futbol-literaturak gorakada handia izan du euskal idazleen artean, baita emakumeen artean ere. Adibidez, Karmele Jaiok *Gure pasioak* (2014) lana argitaratu du, non kontatzen duen futbola maite eta literaturazale bihurtu den senarraren eta literatura maite eta futbolzale bihurtu den emaztearen arteko harremana umorez. Katixa Agirrek eta Aixa de la Cruzek ere *Talismana* (2018) liburua idatzi dute, Athletic Clubek historian zehar izandako arrakasta momentuak gogorarazten dituzten ipuinez osatua. Gainera, Athletic Club Fundazioko *Letrak eta Futbola* ekimenak jokalarien autobiografiak ere argitaratu ditu, klubeko hainbat jokalaria idazle gisa arituz. Horrela, Ainhoa Tirapu atezain ohiak euskaraz idatzitako *Bizitza Eskukadaka* (2019) liburuxka eman da ezagutzera, baita Óscar de Marcos jokalaria gaztelerez idatzitako *Togo* (2019) liburuxka ere (Kortazar Billelabeitia eta Kortazar, 2021).

2.3. Futbola Haur eta Gazte Literaturan

Gizartean beti egon da ideia oker bat. Beti pentsatu izan da haur batek ez duela kirolrik egiten edo ez duela futbolera jokatzeko irakurketa gustatzen bazaio. Eta alderantzizkoa ere pentsatzen da, haur bati egun osoa entrenatzen edo futbolekin aritzea gustatzen bazaio, ez dela irakurle ona edo ez zaiola irakurketa gustatzen uste da (Blasco Roy, 2015).

Hedatutako ideia honen eraginez, askok uste dute futbolarik ez duela lekurik eskolan, irakurzaletasunarekiko antagonista gisa ikusten baitute. Hala ere, futbolarik bere lekua izan dezake eskolan, gizartean duen eraginagatik. Are gehiago, futbola eta irakurketa bateratu daitezke, futbol-literatura ikasgelara hurbilduz. Izan ere, hainbat autorek idatzi dituzte futbolari buruzko literatur lanak eta kirol honetaz baliatuz hainbat kontakizun eta poema ekoitzi dituzte, futbola eta literatura elkarrekin ager daitezkeela agerian utziz. Haur eta gazte literaturan ere, futbola ardatz duten hainbat lan argitaratu dira; hau da, futbolari buruzko bibliografia ugari dago.

María del Mar Boillosek (2020) estatu mailan irakurlearen artean harrera ona izan duten titulu batzuk nabarmentzen ditu. Horien artean, Vicent Dasiren *El mejor de los 22* (2014), Belén Gopeguiren *El balonazo* (2015), Luis Pratsen *El chaval de la cantera* (2016), José Urriolaren *Cuentos a patadas* (2016) eta Violeta Monrealen *Blanca, guardameta prodigiosa* (2019). Horrez gain, badira hainbat lan biltzen dituzten bildumak ere, argumentu hari bakarria

duinak: Juan Carlos Cresporen *Antiescuela de fútbol*, Laura Gallegoren *Sara y las goleadoras*, Joachim Masanneken *Las Fieras Fútbol Club*, Gerard Van Gemerten *Futbolmania* eta Roberto Santiagoren *Los futbolisimos*.

Euskal Haur eta Gazte Literatura aztertuz, futbola ardatz duten hainbat literatura lan argitaratu dira, futbola literaturan sartzeko euskal idazleen gero eta interes handiagoa erakutsiz (Boillos, 2020). Azken hamarkadako titulu ezagunenak hauek dira: Aingeru Epaltzaren *Baloika* (2013), Patxi Zubizarretaren *Mundua baloi batean* (2014), Eva Santanaren *Jokoz kanpo! Arlote metodoa, aparteko futbolaria izateko* (2016), John Anduezaren *Lepoan hartu* (2016), Gaizka Arostegiren *Txopo* (2016) eta Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019).

2.4. Futbol-literatura baliabide didaktiko gisa. Curriculumarekiko lotura

Haurren irakurzaletasuna bultzatzeko modua bere intereseko istorioak irakurtzea da, eta kontuan izanda gaur egungo gazteen eta umeen zaletasun handienetarikoa futbola dela, Lehen Hezkuntzako ikasgelara futbol-literatura eramatea aukera ona izan daiteke. Izan ere, ikasleen errealitatetik hurbil dagoen gaia izanik, haien motibazioa eta interesa pizten da. Are gehiago, futbola hitz bihurtzen denean, futbol-literatura potentzial handiko baliabide didaktikoa izan daiteke.

Maria del Mar Boillosek (2020) azaltzen duen bezala, alde batetik, futbol-literatura hizkuntza lantzeko eta irakasteko tresna probetxugarria da, XX.mendearen erdialdeaz geroztik agertutako komunikazio-gaitasun kontzeptuaren hainbat dimentsio barnean hartuz. Komunikazio-gaitasuna komunikazio-egoerari eta testuinguruari egokitutako diskurtsoak sortzeko eta ulertzeko ahalmen gisa ulertzen da (Bermúdez eta González, 2011). Futbolari buruzko lanen literatura testuetan hizkuntza bera modu natural eta errealean islatzen da, bertan bizitzako benetako egoeretan ematen diren elkarrizketak, bakarriketak, deskribapenak, pasarteak eta abar ageriz. Ondorioz, futbol-literaturak *Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan* (Europako Kontseilua, 2022) adierazitako komunikazio-gaitasuna lantzea ahalbidetzen du. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculum berria (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa) ezarritako *hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* garatzeko aukera ematen du. Zehazki, hainbat esparru eta testuingurutan, eta hainbat komunikazio-helbururekin, ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jarduteko gaitasuna eskuratzeko parada ematen du. Horrez gain, futbol-literaturako lanak tresna positiboak izan daitezke hizkuntza irakasteko, futbola haurren gustuko gai hurbila izanik, ikasleek pertsonaien

errealitatean gertatzen dena ezaguna zaiela sentitzen baitute. Horrela, futbol-literaturak haien motibazioa bultzatzen du, irakurketa plazer iturri bilakatuz.

Bestetik, futbolarik duen osagai emozionalari esker, futbolarik buruzko lanek zirrarak eta baloreak lantzeko aukera eskaintzen dute. Futbol partida batean hainbat sentimendu eta zirrara loratu daitezke; batez ere, arrakastarekin eta porrotarekin zerikusia dutenak. Hortaz, futbol-literaturak emozioak, kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortutako organismoaren egoera konplexu moduan ulertuak (Bisquerra, 2003), ikasgelan jorrazteko parada eskaintzen du, hezkuntza emozionala praktikan jarritz. Hezkuntza emozionala gaitasun emozionalen garapena bultzatu nahi duen hezkuntza-prozesu jarraitua eta iraunkorra da (Bisquerra, 2009). Honen xede nagusia Daniel Golemanek argitaratutako *Inteligencia Emocional* (1995) liburuarekin ezagun egindako adimen emozionala delakoa garatzea da, norberaren eta besteen emozioak eta sentimenduak kontrolatzeko, kontziente izateko eta erregulatzeko (Domínguez Rodríguez, 2014). Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculum berriak (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko) ezarritako *kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa* bezala definitutako funtsezko kompetentziaren helburu nagusietako bat autoerregulazio emozionala da. Beraz, futbol-literaturak aipatutako kompetentzia horretan eragin esanguratsua izan dezake, norberaren sentimendu eta emozioen kontzientzia hartzeko eta horiek kudeatzeko, baita gainerako pertsonen sentimenduak ulertzeko aukera ere ematen baitu.

Gainera, futbol-literaturak balioak lantzeko ere balio dezake, futbolarik munduan bertan daudenak; hala nola, konpromisoa, adiskidetasuna, berdintasuna, umiltasuna eta elkartasuna. Are gehiago, futboleko ageri diren alderdi negatiboak haurrekin lantzeko eta pentsaera kritikoa garatzeko bidea ere ematen du futbol-literaturak; adibidez, matxismoa, joko zikina, dopina, homofobia, ... Elementu negatibo hauek futbolarik orbitan ageri dira, eta haurrei ezagutarazi behar zaie, jakitun izan daitezten (Blasco Roy, 2015). Era honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculumak (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko) adierazitako balioak lantzeko beharri erantzun dezakete futbolarik buruzko lanek. Izan ere, curriculumaren barneko *herritartasunerako kompetentzian* zehazten diren genero-berdintasuna bezalako printzipio etiko eta balioak garatzeko aukera ematen dute.

3. Metodologia

Lan honen helburu nagusia, hezkuntzaren eta futbol-literaturaren arteko erlazioa ezartzea da, futbol-literaturak baliabide didaktiko gisa duen potentziala eta Lehen Hezkuntzako gela batean izan dezakeen erabilgarritasuna aztertuz. Horretarako, Euskal Haur eta Gazte Literaturako futbolaren gaia jorratzen duen eleberri batetik abiatuko da ikerketa hau, Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019) eleberritik, hain zuzen ere.

Esti Vivanco Bilbon 1989an jaiotako hizkuntza irakasle eta idazle bizkaitarra da. Deustuko Unibertsitatean Ingeles Filologian lizentziaduna eta Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan masterduna, hezkuntza munduan egiten du lan, DBHko eta Batxilergoko hizkuntza-irakasle gisa. Hala ere, idazle gisa ere aritzen da; izan ere, betidanik izan du irakurketarako eta idazmenerako interes handia. Gazte mailako hainbat sari irabazi ditu; besteak beste, Urruzuno Literatur Lehiaketa (2004, 2005, 2006) eta Euskaltzaindiak antolatutako Azkue Saria (2004). Gaur egun, Haur eta Gazte Literaturan dihardu gehienbat, eta zenbait liburu argitara eman ditu: *Argixorjin* (2014), *Eireren Egunerokoa* (2015) eta *Egun gorriak* (2019).

Ikerketa lan honek Esti Vivancoren azken eleberria du abiapuntu: *Egun gorriak* (2019). Hamar-hamabi urte bitarteko umeei zuzendutako eleberri honen ardatza futbola izanik, bizitzako beste gai edo kontu batzuetaz ere mintzatzen da. Izan ere, idazle bizkaitarraren eleberriak futbol-literaturan erabiltzen diren gai giltzarrietako asko jorratzen ditu; horien artean, porrotaren eta arrakastaren arteko dialektika, haurtzaroan eta nerabezeroan gertatzen den hastapena eta penaltiak edo finalak eragiten duen suspensea. Eleberriaren argumentuari dagokionez, Izar eta Ekhi hamabi urteko neba-arreba bikiak dira. Biek futbola maite dute, baina familiako kide batzuek horren aurrean duten jokaera guztiz ezberdina da. Gainera, Izar nerabezeroan eta horrek dakartzan arazo eta gorputz aldaketa guztietan sartuta dago betebetan. Istorioan zehar, Izarrek bidean aurkitutako oztopoak nola gainditzen dituen ezagutuko du irakurleak.

Beraz, futbolaren eta hezkuntzaren arteko harremana ezartzeko, lehendabizi *Egun gorriak* (2019) eleberriaren azterketa narratologikoa egingo da, Gérard Genette (1989) idazleak garatutako eredua aplikatuz. Horrela, eleberriaren ezaugarri nagusiak aztertuko dira; zehazki,

izenburua, argumentua, gaia, egitura, narratzailea, pertsonaiak, denbora eta espazioa, eleberriko bereizgarriak sakon aztertzeko eta haurrentzat egokiak direla bermatzeko.

Taula 1. Emozioak ikuspegi pedagogikotik sailkatuta

EMOZIO NEGATIBOAK	
<i>Lehen mailako emozioak</i>	
Beldurra	ikara, izua, laztura, terrorea, sarrakioa, fobia.
Haserrea	amorrua, hira, gorrotoa, sumindura, erremina, nazka, haserre bizia, larritasuna, oldarkortasuna, inbidia, inpotentzia.
Tristura	depresioa, frustrazioa, dezepzioa, mina, pena, melankolia, bakartasuna, gogogabetasuna, egonezina.
Nazka	ezinikusia, mespretxua, higuina, gorrotoa.
Antsietatea	larritasuna, desesperazioa, egonezina, ziurtasun-gabezia, estresa, urduritasuna.
<i>Emozio sozialak</i>	
Lotsa	errua, herabetasuna, auzo-lotsa, gorritasuna.
EMOZIO POSITIBOAK	
Poza	berotasuna, euforia, alaitasuna, dibertsioa, gozamena, gogobetasuna, umorea.
Maitasuna	onarpena, afektua, ternezia, sinpatia, enpatia, konfiantza, kidetasuna, errespetua, mirespena, harrotasuna, eskertasuna.
Zoriona	ongizatea, lasaitasuna, barne bakea, poza, gozamena, asetasuna.
EMOZIO ANBIGUOAK	
Harridura	txundidura, nahasmena, miresmena, kezka, ezinegona.

Ondoren, eleberrian bertan ageri diren emozio eta balio nagusien azterketa gauzatuko da, istorioan nola islatzen diren adieraziz. Horretarako, alde batetik, emozioen azterketa egiteko, Rafael Bisquerrak (2009) hezkuntza emozionalean erabiltzeko asmoarekin proposatutako emozioen ikuspegi pedagogikoa erabiliko da, non emozioak lau talde nagusitan sailkatzen diren: emozio negatiboak, emozio positiboak, emozio anbiguoak eta emozio estetikoak. Hala ere, aipatu beharra dago egindako azterketan emozio estetikoak alde batera

utzi direla, hauek edertasunaren aurrean ematen diren emozioak baitira, eleberri baten barruan aurkitzea oso zailak direnak.

- a) gorputz-balioak: osasuna, elikadura ona, kirola.
- b) balio afektiboak: maitasuna, adiskidetasuna, afektua, familia, konfiantza.
- c) balio indibidualak: ausardia, erantzukizuna, autokontrola, ahalegina.
- d) balio intelektualak: ezagutza, jakinduria, ulermena, sormena.
- e) balio moralak: zintzotasuna, laguntza, eskuzabaltasuna, justizia.
- f) gizarte-balioak: berdintasuna, bizikidetzatza, enpatia, errespetua, tolerantzia, askatasuna, lankidetzatza.
- g) balio ekologikoak: birziklatzea, animaliekiko errespetua, ingurumenaren eta naturaren zainketa.
- h) balio instrumentalak: botikak, etxebizitza, teknologia.
- i) balio erlijiosoak: fedea, karitatea, errukia, barkamena.

Arestian adierazitako moduan, *Egun gorriak* (2019) eleberriaren azterketa araketa narratologikoan oinarritzen da. Honekin batera, liburuan agertzen diren emozioak eta baliok ere miazten dira.

4. *Egun gorriak* (2019) eleberriaren azterketa

4.1. *Azterketa Narratologikoa*

4.1.1. *Izenburua: Egun gorriak*

Eleberriaren izenak polisemiaren agerpen garbia egiten du. Izan ere, izenburuak gutxienez bi esanahi desberdin ditu, *gorri* hitzak eragindakoak.

1. Alde batetik, hilekoaren egunak irudikatzen ditu, odolaren kolore gorria azpimarratuz. Izar nerabezaro bete-betean sartuta dago, eta ondorioz, bizitzako garai honetan emakumeek heldutasunerako bidean izaten duten aldaketa fisiologiko nabarmena pairatzen du Izarrek: bere lehen hilekoa etortzen zaio.
2. Bestetik, egun gogorak edo latzak islatu nahi ditu izenburuak. Izarrentzako ez dira egun batere errazak izaten ari. Azkenaldian ezinegona nabarmentzen da bere bizitzan, hainbat kontu baititu buruan bueltaka: futbol kopako finala, aitak eta amamak dituzten

pentsamolde atzeratuak, nerabegaroko aldaketak, itxura fisikoa, adiskidetasuna eta Joanekiko maitasuna.

4.1.2. Argumentua

Izar futbolera jokatzen duen 12 urteko neska arrunta da. Bere neba bikia ere, Ekhi, eskolako futbol taldean aritzen da. Biek futbolarekiko pasio sutsua izanik, familiako kideek jarrera zeharo desberdina erakusten dute, Ekhi lehentasuna emanaz eta Izar bigarren maila batean utziz neska izateagatik. Aita ez da Izarren futbol partidak ikustera joaten; aldiz, ez du Ekhi txapelketa bakar bat ere galtzen. Amama Anuntxik ere aurreko garaiko pentsamoldeak agerian uzten ditu, futbola neskentzako kirola ez dela adieraziz, baita neskek ballet edo dantza egin beharko luketela esanez ere. Hori gutxi balitz, Izar nerabeek izaten dituzten arazoetan erabat murgilduta dago. Alde batetik, haurtzarotik helduarorako trantsizioan ematen diren gorputz aldaketak direla eta; hala nola, bularren hazkundera eta hilekoa, Izar bere itxura fisikoari garrantzia ematen hasiko da, inguruko iritziei arreta berezia eskainiz. Bestetik, bere berdinekiko harreman sozialak Izarren egunerokotasuneko kezka nagusi bihurtuko dira, Joanekiko maitasun sekretuaz gain, lagunak inoiz baino urrunago sentitzen baititu. Bidean topatutako oztopo guztiak gainditzen saiatuko da Izar, bere buruarengan sinesteko gaitasuna, ametsak betetzeko grina eta inoiz amore ez emateko jarrera nabarian utziz.

4.1.3. Gaia

Eleberriak hainbat gai jorratzen ditu aldi berean, futbola, emakumearen berdintasuna, nerabegarria, maitasuna eta misterioa uztartuz. Lehenik eta behin, futbola agertzen da ardatz gidari gisa. Izar, protagonista, eskolako nesken futbol taldeko atezaina da, eta haren bikia ere, Ekhi, futboleantzen da aurrelari moduan. Bai mutilen, bai nesken txapelketako finalek berebiziko garrantzia izango dute istorioaren garapenean. Bigarrenik, neba-arreba bikien futbol zaletasunaz baliatuz, emakumearen berdintasunaz mintzatzen da. Izan ere, biek futbola gustuko izanik, familiako kideek, bereziki aita eta amama, interes eta jarrera erabat desberdina erakusten dute, Izar desanimatuz eta emakumezkoen futbola gutxietsiz. Hirugarrenik, eleberriak nerabegaroko aldaketez ere hitz egiten du; batez ere, emakumeek jasaten dituzten aldaketa fisiologikoetan arreta jarritz. Izar nerabegarora heldu da eta dagoeneko aldaketa txiki batzuk sumatu ditu, baina istorioan zehar bere lehen hilekoaren esperientzia eta horrek dakartzan ondorioak ezagutuko dira. Azkenik, zeharkako eran eta eleberrian erabakigarri izan

gabe, maitasuna eta misterioa gai gisa azaltzen dira, Izarrek Joanesekiko duen maitasun ezkutuaren eta liburuzain misteriotsuaren eskutik.

4.1.4. Egitura

Eleberriak egitura lineala jarraitzen duela esan daiteke, orokorrean sarreraren, korapiloaren eta amaieraren denborazko egitura kronologikoari jarraitzen baitio. 16 kapitulutan banatuta dago, bakoitza bere izenburu propioarekin. Lehenengo lau kapituluak sarrerari dagozkio, bertan ematen baitira ezagutzera istorioko pertsonai nagusiak, baita argumentuaren nondik norakoak ere: futbola eta aitaren gaitzespena, nerabezaroko aldaketen hastapena eta Joanesekiko maitasuna. Hurrengo zazpi kapituluak korapiloaren barnean kokatuko lirake, non gertakarien sekuentziak istorioa garatzen duen, Izar protagonistaren bizitzan arazoak eta zailtasunak azalduz: lehenengo hilekoa, liburuzain berriaren misterioa, futbol kopako finala, aitaren adoregabetasuna futbolaren arloan, Joanesen interes falta, ... Azkenengo 5 kapituluek; aldiz, amaiera osatuko lukete, Izarrek bidean aurkitutako oztopoen gainditzea erakusten baitute, Ekhi nebaren berbak eta aitak futbol kopako finalean egindako agerpena mugarri izanez.

Hala ere, aipatu beharra dago hirugarren kapituluan iraganera salto egiten duela, analepsia edo edo “flash-back” bidez haurtzaroko oroitzapen bat gogora ekarriz, baina honako hau ez da orain azalduko, hurrengo lerrotan agertuko baita sakonki aztertuta; denboraren atalean, hain zuzen ere.

4.1.5. Narratzailea

Narratzaile heterodiegetiko eta estradiegetikoak berea ez den istorio bat kontatzen du eta istoriotik at kokatzen da. Hau da, hirugarren pertsona gramatikala eta iraganeko aditz formak erabiliz, kanpotik kontatzen ditu Izarren bizipenak, ez baitago istorio barruan. Horrez gain, orojakilea ere izan da. Izan ere, gertatu diren eta gertatuko diren gertakari zein pertsonaia guztiei buruzko informazioa du, baita pertsonaien pentsamendu eta sentimenduen ezagupena ere. Adibidez, honako pasartetan aditzera ematen den bezala: “«Hau lotsa! Futbolak itsutu egiten du! Espektakulu tamalgarri hau bizi behar izatea ere!» pentsatu zuen Izarrek bere kolkorako; «eskerrak amak hori ikusi behar izan ez duen»” (16); “Emozioaren emozioz, Izarri negar egiteko gogoia sartu zitzaion. Horren orde, baina, adorea hartu, hortzak indarrez estutu eta bere buruari zin egin zion ahal zuen guztia egingo zuela partida hura irabazteko” (104).

4.1.6. *Pertsonaiak*

Pertsonaia bakoitzaren azterketarekin hasi baino lehen, aipatzekoa da eleberriko pertsonaiak bi multzo nagusitan bana daitezkeela. Alde batetik, familia osatzen duten kideak; hau da, Izar eta bere senideak (Ekhi, aita, ama eta amama), lehen mailako pertsonaiak izango lirateke, Izar protagonista nagusia izanik. Bestetik, Izarren ingurukoak ageri dira bigarren mailako pertsonaia gisa.

- I. Izar: Futbolean atezain moduan jokatzen duen 12 urteko neska arrunta da. Nerabezaroan sartuta, gorputzeko aldaketez kezkatzen hasia dago, baita besteen zer esanaz ere; izan ere, bere gelakideak bera baino garatuago daude eta hori dela eta, “surf-ohol” ezizena jarri diote, bere gorputzarekiko lotsa handituz. Ondorioz, elastiko zabalak eta kirol-jertse txanodunak janzten ditu. Hala ere, egun batean, klaseko beste neskei bezala, hilekoa etortzen zaio. Horrek are gehiago areagotzen du futbolaren inguruko Izarren buruhaustea. Izan ere, futbolaren arloan bere familiaren sostengua edo oniritzia ez izateari, amama Anuntxiren antzinako sinesmen superstiziosoak gehitzen zaizkio, emakumeek hilekoa dutenean kirola egiterik ez dutela ziurtatuz, besteak beste. Horren eraginez, Izar asko kezkatzen da, nesken kopako finala berehala baita eta jokatu ahal izango duen ala ez zalantzan du. Dena den, amaieran, hilekoari esker, bizitzarako momentu askotan, baita futbolean ere, lagungarri izan daitekeen emakume-sena edo intuizioa gara dezakeela ohartzen da. Hortaz, pertsonai borobila dela agerian da, ekintza aurrera doan heinean, aldaketa sumatzen baita bere izaeran. Hasieran arazo desberdinen eraginez, oso dudatsua da eta ez du bere buruarengan sinisten. Amaieran aldiz, bidean aurkitutako oztopo guztiak gainditzen ditu, ametsak betetzeko bide bakarra inoiz amore ez ematea ezinbestekoa dela jabetuz.
- II. Ekhi: Izarren neba-bikia da eta izaera guztiz ezberdina du. Izar bezala, futbolean ibiltzen da aurrelari moduan, baina honek, aldiz, familiaren sostengua du. Hala ere, badaki bidegabekoa dela eta Izar familia aurrean hainbat alditan babesten du. Gainera, Izar animatzen saiatzen da uneoro, arazoei alde positibotik begiraturaz, futbolean familiaren oniritzia ez izateak, nesken futbol kopako finalak eta gorputz aldaketek, hilekoa barne, Izarrengan eragin handia dutela ikusten baitu.
- III. Ama: Seme-alabak asko maite dituen eta haietaz, eta haien heziketaz, asko arduratzen den emakumea da. Izarrek nahi duena egiteko askatasuna errespetatzen eta goratzen du; hala nola, futbolean eta depilazio kontuetan, seme-alaben ongizateari garrantzia ematen baitio. Horrez gain, bere senarrari, Izarren eta Ekhiren aitari, errieta egiten dio askotan,

seme-alaben heziketan kaltegarriak izan daitezkeen portaerak aurpegiratu. Adibidez, futbolaren arloan bi seme-alabei tratu ezberdina ematean; hau da, Izarri futboleant babesik ez ematean, Izarren maitasuna galduko duela ohartarazten dio.

— Ez al duzu ikusten? Ahal izaten duzun guztietan, Izar adoregabetzen saiatzen zara. Zenbat aldiz errepikatu diozu futbola ez dela neskontzako kirola? Haren pasioa da! Pozik egon beharko zenuke bi seme-alabekin afizio hori partekatzeaz! Baina, hori egin beharrean, tratu zeharo desberdina ematen diezu Ekhirri eta Izarri. Zenbatetan joan zara Izarren futbol partidetara? Inoiz ez! Ekhiren kasuan, berriz, ez duzu txapelketa bat bera ere galdu. (67)

- IV. Aita Inaxio: Pazientzia gutxiko gizon lehiakorra da, eta futbola asko gustatzen zaio. Bi seme-alabekin zaletasun hori partekatzen du, baina bikiek futbolarekiko pasio sutsua izanik, tratu ezberdina ematen die. Izan ere, ez du Ekhiren partida bat ere ez galtzen; aldiz, ez da inoiz Izarren partidetara joan, alabaren zaletasuna ez baitzaio ondo iruditzen: “Futbola ez da neskontzako kirola” (20). Horrez gain, aipatzekoa da futbolak itsutu egiten duela, bere onetik ateratzen du, eta kiroltasunari lotutako jarrera desegokiak erakusten ditu; adibidez, Ekhiren partida batean arbitroa iraintzen du eta botila bat botatzen dio. Gainera, jarrera eta pentsamendu atzerakoiak edo zaharkituak ere erakusten ditu, berdintasunerako bidean oztopo direnak: “Berehala hasi beharko zara depilatzen ezta, Izar? Badakizu iletzar horiek hemendik aurrera atoan haziko zaizkizula“ (59); “Hilekoa daukazuenean, emakumeei ezin zaizue ezer esan; txikikeriarik tontoenagatik ere sutan jartzen zarete. Basapiztiak ematen duzue...” (62). Dena den, bere emaztearekin; hau da, Izarren eta Ekhiren amarekin, izandako hizketaldiaren ostean, triste eta pentsakor geratzen da, buruari eraginez, eta azkenean Izar ez duela behar bezala adoretu ohartzen da. Jarrera hori aldatzeko lehenengo pausua ematen du amaieran: nesken kopako finala ikusten joaten da (104), Izar animatzeko asmotan. Beraz, pertsonai borobila dela esan daiteke, bere portaera guztiz aldatzen baita istorioan zehar, garapena izanez.
- V. Amama Anuntxi: Izar eta Ekhiren amama da. Haiekin bizi da duela hiru urte, oso nagusia baita bakarrik bizitzeko. Emakume edadetua izanik eta etxekoandre izateko heziz, beste garaiko pentsamenduak ditu, hainbatetan esamolde atzerakoiak agerian utziz: “Zergatik ez duzu ballet edo dantza ikastaroren batean izena ematen, zure adineko edozein neskatxak egingo lukeen bezala?” (20); “Jainko maitea... Heldu da eguna. Gure Izartxo emakumetu egin da! Ea orain elastiko zabal horiek alde batera uzten dituzun eta pinpirinago janzten zaren!” (57); “Emakume batek hilekoa duenean, ezin

du maionesarik egin, ez arrautzarik edo esnekirik jan. Ezin du bainatu, ezta kirolik egin ere!” (61). Hala ere, pertsonai borobila dela esan daiteke, istorioan zehar garapena duela ikusten baita. Izan ere, amaieran Izarren futbol-partida ikustera joaten da, eta oker zegoela konturatzen da, antzinako sinesmen horiek baztertuz: “Egia da, laztana; guztiz oker geunden. Harrituta nago zelan jokatzeko duzuen ikusi ondoren!” (110).

- VI. Joanes: Ekhiaren taldean atezain gisa aritzen den mutikoa da, Izarren gelakidea eta haurtzaroko lagun ohia. Izan ere, Izar txiki-txikitatik ezagutzen du, umetan parkeko futbol-zelaian arratsaldeak elkarrekin ematen zituzten eta. Hala ere, azken urteetan haien arteko harremana hoztu egin da, nahiz eta eskolako lan batzuk batera egin. Amaieran, Izarrek jokatu duen nesken kopako finala ikustera joaten da Ekhiarekin, eta elkarrenganako maitasuna agerian geratzen da, harekin elkarrizketa txiki bat izan ondoren, lehen mailako nesken derbira gonbidatzen baitu Izar, ezkerreko eskua helduz eta irriño eztiaguz (117).
- VII. Alize: Izarren lagun onena da, izaera bitxi eta modernokoa, guztiz naturala. Ez du futbola gustuko, beste zaletasun batzuk ditu eta: sare sozialak, arropa eta dantza. Denbora gutxian asko aldatu da: lehen liburu potoloak irakurtzen zituen, eta hausnarketa sakonak egiten zituen gai askoren inguruan. Orain, berriz, arropa estu-estua jantzen du, eta goizero apaintzen da eskolara joateko (23). Dena den, oso ezberdinak izan arren, ezin hobeto konpontzen dira, eta adiskidetasun sendoa dute, elkarrekin zailtasunei buru eginez gorpuztua.
- VIII. Ariñe: kontrako futbol taldean aurrelari moduan jokatzeko duen neskato lehiakor eta oldarkorra da. Irabazteko obsesioak itsututa, ingurukoak mespretxuz tratatzen ditu (27), eta Izar kikiltzeko asmoz, zirikatzen eta mehatxatzen du zenbait alditan. Amaieran, futbol partida galtzean, haren portaeraren jatorria begi bistan gelditzen da, Izarri aitortzen baitio gurasoen eskaera maila altua: “Bada...nire gurasoek...– hasi zen esaten, begiak gorri-gorri zituela–. Gurasoek errieta egingo didate partida galtzeagatik. Gurasoek asko eskatzen didate; horregatik saiatzen naiz irabazten kostala ala kostala” (112). Dena den, Izarren erreakzio apala ikustean, bakezkoak egiten dituzte, bostekoa emanez eta areriotasuna bertan behera utziz (113).
- IX. Liburuzaina: Eskolako liburutegian lan egiten duen liburuzain berria da, Izarrek bakarrik ikus dezakeena: “Emakume gazte liraina zen, ezpainak karminez margotuta zituena eta lepoan kolore gorri biziko zapi dotorea zeramana” (46). Pertsonaia misteriotsu gisa agertzen da; izan ere, ez du Izar aurretik inoiz ikusi eta badaki Gizarte Zientzietako irakasgaietan Atalantari buruzko lana egin behar dutela. Horrez gain, Izarri

hilekoa etortzen zaionean, ordenagailu-gelako beiretatik pasatzen da, burua biratuz eta irribarre eginez (52). Beraz, hilekoaren pertsonifikazio gisa ikus daiteke pertsonai hau, hilekoa presente den momentuetan soilik ageri baita. Gainera, bukaeran lerro artean irakur daiteke bera izan dela Joanesi pakete bat eman diona Izarri emateko. Haren barruan berak zeraman zetazko zapi gorri ederra ageri da, mezu bat brodatuta: “Egun gorriak aukera zoragarriz beterik daude; aprobeitza itzazu!” (118), hilekoak hutsezinezko emakume-sena edo intuizioa ematen duela berretsiz.

4.1.7. Denbora

Izarren istorioa XXI. mendean kokatzen da, gaur eguneko nerabe baten bizitza baitu kontagai. Horrela, Izarren nerabezaroan hasten eta amaitzen da kontaketa. Hala ere, ez da istorioaren hurrenkera kronologikoa errespetatzen, hirugarren kapituluaren zehazki, *Haurtzaroko adiskidetasun baten oroimena* izenekoan, denboran jauzi bat ematen baita iraganera. Analepsia baten bidez Izarren haurtzaroko oroitzapen eder batera atzera egiten du, Joanesekin umetan parkeko futbol-zelaian emandako arratsalde bat gogoratuz, hain zuzen ere: “Izarri oraindik irribarra ateratzen zitzaien zeinen tandem ona osatzen zuten gogoratzen zuenean. Izan ere, behin, elkarrekin zelaian jolasten zebiltzala, [...]” (27).

Istorioaren iraupenari dagokionez, hiru hilabetekoa dela esan daiteke. Izan ere, testuan ageri diren erreferentziei erreparatuz, istorioa ikasturteko hiruhileko batean gutxi gorabehera garatzen dela antzematen da. Eleberriaren bosgarren kapituluaren, *Atalantari buruzko lana*, Izar eta bere ikaskideak ebaluazio horretan Gizarte Zientzietan lantzen hasi diren gaia azaltzen da (39). Gainera, hurrengo kapituluaren ikus daiteke Izarrek beste irakasgai batzuetako azterketak dituela; adibidez, Natur Zientziak ikasgaikoa, ebaluazioak aurrera jarraitzen duela aditzera emanez. Azkenik, amaierako kapituluaren batean, *Alizerekin paseoa* deiturikoan zehazki, Izarrek eta bere gelakideek lan eta azterketa guztiak amaitu dituztela esaten da: “Eskolen ostean, Izar eta Alize paseotxo bat emateko geratu ziren, lan eta azterketa guztiak amaitu zituztela eta azkenik libre zeudela ospatzeko” (85). Beraz, pentsa daiteke eleberriaren hasieratik amaierara hiruhilabete bat, ikasturteko ebaluazio bat, igarotzen dela.

4.1.8. Espazioa


Nahiz eta ezezaguna izan, eleberriko istorioa Euskal Herriko herri edo hiri batean garatzen dela suposa daiteke. Bestalde, eleberrian zehar ageri diren espazioak ugariak dira,

baina haien artean bereizketa nabarmena dago: barne-espazioak (itxiak) eta kanpo-espazioak (irekiak). Barne-espazioen artean, nerabeak haien egunerokotasunean sarritan joaten diren lekuak ageri dira; hala nola, etxea, eskola eta liburutegia. Aldiz, kanpo-espazio nagusi eta bakarra futbol-zelaia da. Espazio horien artean mugitzen da Izar protagonista, baina emakume izateagatik, bera hain eroso sentitzen den eta futbolera jokatzeko grina garatzen duen tokian; alegia, futbol-zelaian, ez du bere senideen onarpena, sostengua edo babesia lortzen. Beraz, irakurketa sinbolikoaz baliatuz, familiako kideek azkenean Izar futbolaren arloan adoretzean, emakumeek kanpo-espazioetan ere bere lekua izateko aldarrikapen gisa ikus daiteke, “emakumeen espazioak” barne espazioak direla dioen ideia tradizionalaren kontrara.

4.2. Emozio eta balioen azterketa

Misterioa, futbola, maitasuna, arrakasta, ... uztartzen dituen eleberria izanik, zenbait emozio eta balio, esplizitu zein inplizitu, agerikoak dira. Alde batetik, eleberrian agertzen diren zirrara nagusien presentzia aztertu da, Rafael Bisquerrak (2009) hezkuntza emozionalean erabiltzeko asmoarekin proposatutako ikuspegi pedagogikoaren sailkapena erabiliz (*Ikusi Irudia 1*), eta behin hori eginda, eleberrian emozio horiek nola ematen diren eta zer egoeratan islatzen diren adierazi da.

Irudia 1. Emozioak ikuspegi pedagogikoaren arabera



- I. Tristura: “Arimaren egoera bihotz-mingarria, barea eta iraunkorra; nahigabeak edo oinazeak gogo hartzea” moduan definitutako emozio negatiboa da (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa), normalean gogo aldartearen beherakada suposatzen duena. Eleberrian zehar hainbat momentutan agerikoa da; adibidez, Ariñek partida galtzean, bere gurasoek asko eskatzen diotela; hau da, berarekin oso zorrotzak direla, aitortzen duenean (112) eta aita Inaxio Izar ez duela behar bezala adoretu eta alabaren maitasuna galtzeko arriskuan dagoela konturatzen denean (70). Hala ere, kasu honetan ere, emozio hau futbolarekin lotuta ageri da gehienbat, bereziki Izarrek futboleko bere familiaren oniritzia eta babesa sentitzen ez duelako.
- II. Haserrea: “Batere atsegin edo gogoko ez denak eragiten duen pozgabetasunezko egoera edo sentimen ageri” gisa definitzen da (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) emozio hau. Obraren haserrea agerikoa da hainbat pasarteetan eta arrazoi ezberdinengatik azaleratzen da. Aita Ekhiaren partidako arbitroarekin haserretzen da, hura oihukatuz, irainduz, baita botila batekin joz ere, Ekhiaren partidua galdu izanaren erruduntzat hartzen baitu (11-16). Bestalde, Izar ere zenbait alditan amorratzen da; adibidez, aitak futbola ez dela neskentzako kirola esaten dionean (31) eta Ariñek, kontrako taldeko jokalaririk, partidua galdu ondoren harengana animatzeko asmoz hurbiltzean, erantzun zakarra jasotzean (111). Horrez gain, Izar eta bere ikaskide batzuk ere haserrea eta sumindura nabaritzen dute, klasean Greziako zibilizazioak emakumeak izaki ahul zirelako ustea zutelako entzutean (40). Hala eta guztiz ere, emozio honen agerpen garbiena amaren pertsonaian ematen da, aitarekin haserretzen baita bien alaba den Izar ez duelako behar bezala adoretzen, ezta babesten ere (64-70).
- III. Lotsa: “Ohorea galtzeak, egin den hutsak, hartu den irainak, edota zenbait pertsonaren aurrean egoteak sortzen duen sentipen ezatsegin” (Euskaltzaindia, 2016., 1.definizioa) gisa ulertzen da. Eleberrian emozio honen agerpen argiak aurkitzen dira Izarren pertsonaian, espezialki nerabegaroko etapan bizi diren aldaketei eta egoerei lotua. Hala nola, aldagelan kideen aurrean biluztean (36), senideek hilekoa etorri izanaren berri izatean (57) eta gustuko duen mutilarekin adarra jotzen diotenean (100).
- IV. Poza: “Atsegin beteak sortzen duen gogo egoera edo zirrara” moduan definitzen den emozio positiboa da (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa), eta obraren une askotan dago presente, bereziki arlo desberdinetan lortutako arrakastarekin lotuta. Izarrek poza sentitzen du batez ere eleberriaren azken zatian. Emakume-sena izanagatik bihozakada

bat du, eta horren ondorioz, azterketan sartuko diren gaiak asmatzen ditu, hamarreko azterketa eginez (75). Bestalde, Joanesek, gustuko duen mutilak, lehen mailako nesken derbira gonbidatzen du (110). Dena den, futbolaren gaian bereziki gailentzen da poza, Izarren taldeak azkenengo minutuan jokaldi bikaina egin ondoren futbol kopako finala irabazten duenean edo familia, aita eta amama barne, Izarren partida ikustera joaten denean, Izarrek futbolean familia osoaren sostengua lortuz: “Izar zoriontsu sentitzen zen. Kostata, baina bazirudien azkenean familia osoa futbolean jokatzeko bere abileziaz konbentzitzea lortu zuela; eta, are garrantzitsuagoa: bere indar eta kemen izugarriaz konbentzitu zituen. Bazen garaia!” (110).

- V. Harrotasuna: Eleberrian emozio honen presentzia ageri da momentu bakarrean, baina zentzu onean, “norbaitek, goresgarritzat edo aipagarritzat hartzen duen zerbaitez, sentitzen duen gogobetetasun bidezko” gisa ulertuta (Euskaltzaindia, 2016, 2. definizioa); izan ere, aitak eta Ekhik Izarrekiko harrotasuna plazaratzen dute futbol kopako finala irabazi ostean.

– Hara, nire txapelduna! Futbol izarra! Zein harro nagoen zurekin, alabatxo!– agurtu zuen aitak, zeharo aldatuta, neska estu besarkatuz eta haren burua maitekiroz musukatuz.


– Bada, ni ere harro nago Izarrekin, baina ez soilik partida irabazteagatik; bere ametsa egia bihurtu arte borrokan ibili delako baizik!– bota zuen Ekhik, arrebari bizkarrean lagunarteko zaplada bat emanez. (109)

- VI. Harridura: “Harrigarri denak eragiten duen zirrara” gisa definitutako (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) emozioaren agerpena obran misterioaren eskutik ematen da, liburuzain misterioitsua istorioan azaltzen denean. Izarren islatzen da harridura nagusiki, aho zabalik geratzen baita hurrengo bi egoeretan. Alde batetik, liburuzainak Atalantari buruzko lana egin behar zutela jakin gabe, horretarako lagungarriak ziren liburuak mahai gainean uzten dituenean (47). Bestetik, futbol partidaren ostean Joanesek emakume baten partez emandako paketearen barruan liburuzainak zeraman zetazko zapi gorri ederra aurkitzean (118).

Bestetik, obran gehien azaltzen diren balioak, baita kontrabalioak ere, balioen aurkako oztopo edo jarrera negatibo gisa ulertuta, eleberrian nola islatzen diren ere aztertu da, Ricardo Marín Ibáñezek (1976) egindako balio-sailkapena erabiliz (*Ikusi Irudia 2*). Dena den, aipatu beharra dago autore honek proposatutako bederatzi taldeetatik soilik hiru taldeetako balioak aurkitu direla eleberrian zehar; zehazki, balio afektiboak, gizarte-balioak eta balio erlijioso

bakarra. Horrez gain, balio hauei kontrajartzen zaien bi kontrabalio topatu dira: indarkeria eta matxismoa, hain zuzen ere.

Irudia 2. Balioen sailkapena Marín Ibañezen (1976) eredu oinarri izanda



- I. Maitasuna: “Norbaiten edo zerbaiten alderako atxikimendua sortzen duen joera edo sentimena, haren ona bilatzera bultzatzen duena” (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa). Balio hau ia eleberri osoan zehar aurki daiteke, eta era desberdinetan agertzen da. Alde batetik, Izar eta Joanesen arteko maitasun istorioa ageri da, azkenengo kapituluan amaiera zoriontsua izanik, elkarri maitatuz. Bestetik, amak bere seme-alabekin duen baldintzarik gabeko maitasuna ere presente dago, itzelezko ardura erakusten baitu beti. Adibidez, Izarrek hilekoa etorri zaiola kontatzeko konfiantza faltagatik asko kezkatzen da, eta bere senarrarekin hizketaldi bat izatea erabakitzen du, Izar ez baitu ondo ikusten eta bere buruarengan konfiantza falta duela sumatzen baitu (66). Horretaz aparte, Ekhi ere bere arreba Izarrenganako maitasun eta mirespen sakona adierazten du askotan, Izar besteen aurrean babestuz eta Izarren erabakiak errespetatuz, zein ametsak bultzatuz, *Ekhiren berbak* izeneko kapituluan agerikoa denez. Azkenik, bada aipatzekoa Izarrek futbolarekiko duen maitasuna ere, argi eta garbi ikusten baita eleberrian zehar kirol honekiko duen pasioa.

- II. Laguntasuna: “Adiskidetasuna; lagunen arteko harremana” (Euskaltzaindia, 2016, 3.definizioa) begi bistakoa da obran Izarren eta Alizeren artean. Bi neskak oso desberdinak izan arren, oso ondo konpontzen direla nabaria da, eta adiskidetasun sendoa erakusten dute uneoro, *Alizerekin paseoan* izeneko kapituluan oso argi islatzen den moduan.
- III. Enpatia: “Beste norbaitekin bat egiteko edo beste norbaitek sentitzen duena sentitzeko gaitasuna” (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) moduan ulertzen da, eta eleberrian azken-aurreko kapituluan ikus daiteke, Izar Ariñeren larruan jarri eta haren egoera zein sentimenduak ulertzen dituenean, berak ere gauza bera bizi izan baitu: “Lasai egon, Ariñe. Oso ondo ulertzen zaitut– baretzen saiatu zen, neskarengana hurbilduz–. Batzuetan etxeok ez dira konturatzen euren hitz eta ekintzek gudan izan dezaketen eraginaz...” (113).
- IV. Berdintasuna: “Berdina denaren nolakotasuna” (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) moduan definituta, eleberrian bi generoen arteko berdintasun gisa ageri da. Izan ere, genero-berdintasuna lortzeko aldarria egiten dute pertsonaia batzuk momentu batzuetan. Adibidez, *Atalantari buruzko lana* kapituluan, non Izar eta bere bi lagunak, Alize eta Anne, Greziako mitoetan ageri den misoginiaren aurka altxatzen diren. Bestalde, *Hipomenesen zotina* izeneko kapituluan ere agerikoa da. Izarrek eta bere taldekideek Atalanta eta sagarren mitoari bukaera ezberdin bat eman behar diotenean, bi pertsonaiak, Hipomenes eta Atalanta, gizona eta emakumea, berdintzen dituzte, genero-berdintasuna babestuz: “argi utzi nahi izan dugu pertsona batek ez duela zertan beste bat baino indartsuagoa edo azkarragoa izan neska edo mutila izateagatik” (84). Azkenik, obra guztian zehar Izarrek kirolen arloan, baina bereziki futboleko, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiten du, emakumezkoen futbola goraipatuz.
- V. Barkamena: “Huts, irain edo bekatu bat zigortzeari edo zor bat hartzeari utzi” (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) esan nahi du. Obran balio honen presentzia aurkitzen da azken-aurreko kapituluan berriz ere, futbol kopako finalaren ondoren, Ariñek eta Izarrek bakezkoak egiten baitituzte: “[...] neskek errespetuzko bosteko sendoa eman zioten elkarri, aurretik izandako areriotasun desatsegin hura bertan behera utziz” (113).
- VI. Indarkeria: “Norbait menderatzeko indar zakar eta basa; zerbait indarrez lortu nahi duenaren gehiegikeria, indarraren erabilera gaitzesgarria” moduan definitzen da (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa), eta eleberrian kontrabalio bezala ageri da lehenengo kapituluan, aita Inaxiok arbitroa iraindu eta botila batekin jotzen duenean:

“Aitak «kaka zaharra!» oihukatu, partida osoan ireki ez zuen ur botila hartu eta, amorruez beteta, arbitroari bota zion bortizki” (16).

- VII. Matxismoa: “Gizona, berez, emakumea baino gehiago dela uste duenaren jarrera eta pentsaera” (Euskaltzaindia, 2016, 1.definizioa) gisa definituta, eleberrian honen agerpen garbia ematen da, aita Inaxioren eta amamaren komentario eta jarreraren bidez. Aitak behin baino gehiagotan errepikatzen du futbola ez dela neskentzako kirola (20, 31), eta horrez gain, emakumezkoen futbola gutxiesten du (68). Hori gutxi balitz, emakumeek depilatzekeo beharraren eta hilekoa dutenean suminkorrako daudelako uste matxistak erakusten ditu (59, 62). Bestalde, amamak beste garai bateko pentsamenduak dituela agerikoa da, erabilitako esamolde atzerakoiak erakusten duten bezala: “Zergatik ez duzu ballet edo dantza ikastaroren batean izena ematen, zure adineko edozein neskatxak egingo lukeen bezala? (20); “Emakume batek hilekoa duenean, ezin du maionesarik egin, ez arrautzarik edo esnekirik jan. Ezin du bainatu, ezta kirolak egin ere!” (61).

5. Ondorioak

Literaturaren eta futbolaren arteko harremanak baloiaren eta hitzaren arteko lotura planteatzen du. Izan ere, gaur egun, futbola mundu mailan interesgarria den gaia izanik, futbol-literaturarekiko interes literarioa nabarmen hazi dela ikus daiteke azken urteetan futbolaren inguruan argitaratutako ipuin eta eleberrien kopuruan. Are gehiago, aztertu den bezala, futbol-literaturak ibilbide luzea izan du. 1918an argitaratutako lehen bi obretatik, Horacio Quirogaren *Juan Polti, half-back* ipuina (1918) eta Juan Parra del Riegoren «Loa del fútbol» poema (1918), gaur egunera arte, futbolari buruzko lan ugari merkaturatu dira. Honako tendentzia hau Haur eta Gazte Literaturan ere sumatu egin da, eta horren isla dira estatu mailan argitaratu diren eta harrera ona izan duten hainbat liburu eta bilduma; hala nola, Roberto Santiagoren *Los futbolísimos* bilduma, 2018an Miguel Ángel Lamataren eskutik zinemaren alorrera ere eraman izan zena. Interes eta gorakada hau futbol-literaturak eskaintzen dituen aukeren emaitza da. Futbola kirol hain sinplea izanda ere, bertan eragile sozial eta kultural gehienak azaltzen dira eta. Gainera, gizartearen portaerak eta jokabideak berrikusten ditu, eta horiek ikuspegi sinbolikotik ulertzeko parada ematen du (Díaz, 2015).

Aztertutako Esti Vivanco idazle euskaldunaren *Egun gorriak* (2019) eleberrian ere arestian aipatutakoa agerikoa da, non gizartearen portaera eta jokabide ezberdinak azaltzen diren; horien artean, matxismoa. Modu berean, eta honekin estuki lotua, idazle bizkaitarrak eleberri osoan zehar genero berdintasunaren aldeko aldarria eta hautua egiten du, emakumea futbolaren munduan sartuz, emakumezkoen futbola goraipatuz eta emakumeen eskubideak zein askatasuna babestuz. Gainera, berdintasunaren balioaz gain, beste hainbat balio eta emozio ere tratatzen dira narrazioan, eleberriaren azterketan arakatu den bezala; hala nola, tristura, poza, enpatia eta barkamena. Bestalde, aipagarria da futbola aitzakia gisa erabiltzen dela beste gai batzuk jorratzeko; hala nola, nerabezaroa, hilekoa eta laguntasuna. Hala eta guztiz ere, futbola etengabe ari da narrazioan, futbola baita gai horiek sartzeko modua.

Horrela, eleberri honek, futbola abiapuntu izanik, Lehen Hezkuntzako ikasleekin hain garrantzitsuak diren emozioak eta balioak, berdintasuna barne, eta nerabezaroko etapan ematen diren aldaketak eta arazoak lantzeko aukera eskaintzen duela aztertu da, Blasco Royk (2015) zehazten duen bezala. Gainera, Gérard Genetten (1989) ereduari jarraiki egindako azterketa narratologikoak, eleberriaren bereizgarriak eta ezaugarriak haurrentzat egokiak direla bermatu du, egitura lineal sinplea, hirugarren pertsona gramatikala erabiltzen duen narratzailea eta istorioaren hurrenkera kronologikoa errespetatzen duen denbora ulerkorra izanez nabarmentzekoak.

Modu honetan, lan hau eragingarria izan da futbol-literatura eta hezkuntzaren arteko harremana ikertzeko. Izan ere, eleberriaren azterketa sakona burututa, haurrentzat egokia dela bermatuta, eta bertan ageri diren emozioak eta balioak ezagututa, orain ateak zabalik daude parte-hartzaileak eta ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen proposamen didaktiko ezberdinen diseinua garatzeko. Beraz, etorkizunari begira, hemen aurkezten den lan hau Lehen Hezkuntzako geletara Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019) eleberria eramateko oinarria edo abiapuntua izan daiteke. Egin den azterketaren bidez, irakasleek oso informazio baliotsua eta zehatza dute diseinu didaktikoak egiteko orduan nondik abiatu jakiteko. Are gehiago, diseinu horiek egiten laguntzeko, jarraian Esti Vivancoren obra ikasgelan lantzeko moduari buruzko ideia eta proposamen batzuk aurkezten dira.

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago ezinbestekoa izango litzatekeela diseinatzen diren proposamenetan Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-curriculum berria (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal

Autonomia Erkidegoan ezartzekoa) kontuan hartzea. Blasco Royk (2015) eta Boillosek (2020) adierazi duten bezala, futbol-literaturak emozioak eta balioak, baita komunikazio-gaitasuna ere lantzeko aukera ematen du. Beraz, curriculumean definitzen diren kompetentzia funtsezkoetako hiru hauek garatzeko parada ere ematen du: hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia; kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa; eta herritartasunerako kompetentzia. Hortik abiatuz, planteatuko diren jarduerak hiru fase ezberdinetan antolatzea komenigarria izango litzateke.

1. Irakurketa aurreko fasea: Fase honetan, ikasleen aurre aurrezagutzak pizteko eta eleberrian agertuko den lexikoa lantzeko jarduerak aproposak izango lirateke. Horrela, istorioan zehar landuko diren gaien inguruko hiztegia gogorarazteaz gain, ikasleak testuinguru barruan kokatuko dira. Hau da, ahozko hizkuntza erabiliz ikasleen emozioen eta balioen inguruko ezagutza aldeztetik ebaluatzen duten ariketaz gain, eleberriko gai nagusiak -nerabezaroa eta aldaketa fisikoak- jorratzen dituzten ariketak ere lagungarriak izango lirateke.
2. Irakurketa bitarteko fasea: Fase honetako jardueren proposamena askotarikoa izan daiteke, eleberririk irakurketan zehar izaera desberdineko jarduerak egiteko aukera zabala eskaintzen baitu. Horrela, irakurmena neurtzetik harago, komunikazio gaitasuna garatzera eta emozioen/balioen lanketa egitera bideratutako jarduerak aproposak izango lirateke. Adibidez, kontrabalioen (indarkeria eta matxismoa) eta emozioen lanketa egiteko antzerkiaren genero-literarioa egokia izan daiteke. Horrez gain, eleberririk diziplinaz gaindikoa ezagutzak lantzeko parada ematen du; zehazki, Gizarte Zientzietako Greziako mitologia eta Natur Zientzietako animalia ornodunak eta ornogabeak, hainbat kapitulutan gai hauek jorratzen baitira.
3. Irakurketa ondorengo fasea: Ikasleek liburu osoa irakurri ostean, irakurritakoarekin zerikusia duten jarduerak egiten jarrai dezakete. Fase honetan, komenigarria izango litzateke aurreko jardueretan egindako sentimendu eta emozioen hausnarketa sakonari amaiera ematea, hizkuntza-komunikazioa garatzea helburu duen azkenengo jarduerara orokor batekin; hala nola, taldeka aurkezpenak egitea edota gutun bat idaztea.

Beraz, hau esanda eta laburbilduz, etorkizunari begira, lan honek Esti Vivancoren *Egun gorriak* (2019) eleberritik abiatuz, proposamen eta unitate didaktiko ondo eraiki bat -helburu, jarduerak, ebaluazio irizpide zehatzekin- diseinatzeko atak zabaltzeaz gain, horretarako erronka

ere ezartzen du. Era berean, futbola eta literaturaren arteko loturaren alorrean ikertzen eta sakontzen jarraitzeko pizgarria ere izan daiteke lan hau, horretarako bidea eraiki baita.

Erreferentzia bibliografikoak

- 77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA/BOPV 109. Zk., 2023ko ekainaren 9a). Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2023/06/2302729e.pdf>
- Agirre, K. eta de la Cruz, A. (2018). *Talismana*. Athletic Club Fundazioa.
- Alberti, R. (1928). Oda a Platko. *Papel de Aleluyas*, 7, s.p.
- Andueza, J. (2016). *Lepoan hartu*. Elkarlanean S.L.
- Arostegi, G. (2016). *Txopo*. Ibaizabal.
- Ashton, T. J. (2014). El Fútbol como simulacro de la vida en la literatura hispana. En R., De la Fuente Ballesteros, J., Pérez Magallón eta F., Estévez (Eds.), *La tragedia del vivir: dolor y mal en la literatura hispánica*, (pp. 19-26). Verdelis.
- Atxaga, B. (1993). *Gizona bere bakardadean*. Pamiela.
- Bermúdez, L. eta González, L. (2011). La competencia comunicativa: elemento clave en las organizaciones. *Quórum académico*, 8(1), 95-110.
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de investigación educativa*, 21(1), 7-43.
- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Editorial Síntesis.
- Blasco Roy, C. (2015). *Fútbol y Educación: revisión teórica de la literatura infantil y juvenil sobre fútbol e investigación etnográfica de cómo aparece en Educación Primaria*. (Grado Amaierako Lana). Universidad de Zaragoza, Facultad de Ciencias Humanas y de la Educación. España. <https://zaguan.unizar.es/record/32572>
- Boillos, M.M. (2020). Futbola hitz bihurtzen denean. En M. M., Boillos eta J., Kortazar (Eds.), *Egungo euskal literatura eta futbola*, (pp. 189-204). UPV-EHU Servicio de Publicaciones.
- Bullagal, J. L. (1927). *El coloso de Rande*. Espasa-Calpe.
- Cano, H. (1997). *Telefono kaiolatua*. Alberdania.
- Cano, H. (2011). *Twist*. Susa.
- Cela, C. J. (1963). *Once cuentos de fútbol*. Editora Nacional.
- Crespo, J. C. *Antiescuela de fútbol*. Alfaguara.
- Dasí, V. (2014). *El mejor de los 22*. Algar.
- De Marcos, O. (2019). *Togo*. Athletic Club Fundazioa.
- Díaz Zuluaga, L. A. (2015). *Literatura y fútbol: otros horizontes de la literatura en España e Hispanoamérica*. (Doktorego Tesia). Universitat Autònoma de Barcelona, Facultad de Filosofía y Letras. España. <http://hdl.handle.net/10803/285423>
- Diego, J. (1961). *El gol nuestro de cada día*. Dossat.

- Domínguez Rodríguez, P. (2004). Intervención educativa para el desarrollo de la inteligencia emocional. *Faisca: revista de altas capacidades*, 11, 47-66.
- Epaltza, A. (2013). *Baloika*. Pamiela.
- Etxeberria, M. eta Etxeberria, X. (2006). *Ez dadila eguzkia sartu*. Elkar.
- Europako Kontseilua. Hizkuntza Politika Saila (2002). *Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua: Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluazioa*. HABE; Eusko Jaurlaritza.
https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculum/ea_9716/adjuntos/europako_markoa.pdf
- Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia. (2016). *Euskaltzaindiaren hiztegia* (2. arg.).
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegia&Itemid=410
- Fernández, W. (1949). *El sistema Pelegrín*. Librería General-Zaragoza.
- Fontanarrosa, R. (1987). *Nada del otro mundo y otros cuentos*. Ediciones de la Flor.
- Galeano, E. (1968). *Su majestad el fútbol*. Arca.
- Gallego, L. *Sara y las goleadoras*. Destino.
- García Cames, D. (2017). Gol y memoria: el fútbol en la narrativa en lengua española del XXI. *Letras de Hoje*, 52(4), 494-502.
- García Cames, D. (2018). *La jugada de todos los tiempos. Fútbol, mito y literatura*. Servicio de Publicaciones Universidad de Zaragoza.
- García Candau, J. (1980). *El fútbol sin ley*. Penthalon Ediciones.
- Genette, G. (1989). *Figuras III*. Lumen.
- Goleman, D. (1995). *Inteligencia emocional*. Kairos.
- Gopegui, B. (2015). *El balonazo*. Ediciones SM.
- Gorrotxategi, A. (2002). *Egurra Pinotxori*. Alberdania.
- Gorrotxategi, A. (2009). *Axola ez duenean*. Alberdania.
- Irigoién, J. M. (2004). *Odolean neraman*. Elkar.
- Irigoién, J. M. (2019). *Derbia*. Elkar.
- Izagirre, K. (2016). *Franco hil zuten egunak eta Basques's Harbour-eko beste kontu asko*. Susa.
- Jaio, K. (2014). *Gure pasioak*. Athletic Club Fundazioa.
- Kortazar, J. (2020). Futbola, nazioa, identitatea Ramiro Pinillaren *Aquella Edad Inolvidable* nobelaren. En M. M., Boillos eta J., Kortazar (Eds.), *Egungo euskal literatura eta futbola*, (pp. 93-113). UPV-EHU Servicio de Publicaciones.
- Kortazar, J. (2022). Futbola euskal ipuingintzan. En M. M., Boillos eta J., Kortazar (Eds.), *Egungo euskal literatura eta futbola II*, (pp. 15-55). UPV-EHU Servicio de Publicaciones.
- Kortazar Billelabeitia, J. eta Kortazar, J. (2021). *Euskonews*.
<https://www.euskonews.eus/zbk/763/euskal-literatura-eta-futbola/ar-0763001003E/#>
- Lamata, M.A. (Zuzendaria). (2018). *Los futbolísimos*. [Pelikula]. Paramount Pictures.

- López De Haro, R. (1924). *Fútbol...Jazzband*. Sucesores de Rivadeneyra.
- Loriga, R. (1992). *Lo peor de todo*. Debate.
- Malagon, A. (2017). *Gelditu zaitezte gurekin*. Elkar.
- Marín Ibáñez, R. (1976). *Valores, objetivos y actitudes en educación*. Miñón.
- Márquez, J. C. (2010). *Llenad la Tierra*. Menoscuarto.
- Masanek, J. *Las Fieras Fútbol Club*. Destino.
- Monreal, V. (2019). *Blanca, guardameta prodigiosa*. San Pablo.
- Montoia, X. (2010). *Fucking artists*. Elkar.
- Núñez Ramos, R. (2015). ¡Maracaná! Fútbol y literatura en una palabra. *Castilla: Estudios de Literatura*, 6, 159-188.
- Parra Del Riego, J. (1943). *Poesía*. Ministerio de Instrucción Pública de Uruguay.
- Pinilla, R. (2012). *Aquella edad inolvidable*. Tusquets.
- Prats, L. (2016). *El chaval de la cantera*. La Galera.
- Pron, P. (2013). *Jot Down*. <https://www.jotdown.es/2013/02/la-literatura-del-futbol-la-literatura-sobre-el-futbol-la-literatura-contr-el-futbol/>
- Quiroga, H. (1918). Juan Polti, half-back. *Atlántida*, (10), s.p.
- Sacheri, E. (2014). *La vida que pensamos: Cuentos de fútbol*. Alfaguara.
- Sampedro Alegria, A. (2020). Futbola eta literatura euskal eleberrian. En M. M., Boillos eta J., Kortazar (Eds.), *Egungo euskal literatura eta futbola*, (pp. 27-40). UPV-EHU Servicio de Publicaciones.
- Sánchez, Y. (2010). Derrotas sublimes: la literatura y el deporte rey. *Hispanorama*, 128, 9-14.
- Sánchez, Y. (2020). Kirol-nitxoak literaturan. En M. M., Boillos eta J., Kortazar (Eds.), *Egungo euskal literatura eta futbola*, (pp. 19-25). UPV-EHU Servicio de Publicaciones.
- Santana, E. (2016). *Jokoz kanpo! Arlote metodoa, aparteko futbolaria izateko*. Ibaizabal.
- Santiago, R. *Los futbolísimos*. Ediciones SM.
- Soriano, O. (1993). *Cuentos de los años felices*. Ediciones Sudamericana.
- Tirapu, A. (2019). *Bizitza eskukadaka*. Athletic Club Fundazioa.
- Uribe, K. (2016). *Elkarrekin esnatzeko ordua*. Susa.
- Urriola, J. (2016). *Cuentos a patadas*. Ediciones Ekaré.
- Valdano, J. (1998). *Cuentos de fútbol*. Alfaguara.
- Van Gemert, G. *Futbolmanía*. Bruño.
- Villoro, J. (1995). *Los once de la tribu*. Aguilar.
- Villoro, J. (2006). *Dios es redondo*. Planeta.
- Villoro, J. (2014). *Balón dividido*. Planeta.
- Vivanco, E. (2019). *Egun gorriak*. Begiko.
- Zubizarreta, P. (2014). *Mundua baloi batean*. Elkar.
- Zunzunegi, J. A. (1931). *Chipiri*. General de Artes Gráficas.